

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak negozioa funtzionatzeko behar diren baliabideak dira.

Gure produktuak honako baliabide hauek izango ditu:

1- Baliabide fisikoak, bertan instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak eta banaketa sarea daude.

- **Instalazioak**→ Ez dugu produkturik ekoizteko instalaziorik izango. Gure produktua Uraldi enpresak ekoiztuko du eta teknologiak Microsoftek
- **Bulegoa**→ Bulego txiki bat izango dugu. Bertan, lan egiteko bulego bat izango dugu, ispiluak gordetzeko eta gauzak administratzeko.
- **Ibilgailuak**→ Gure produktua bezeroengana eramateko ez dugu ibilgailu propioirik izango. Seur DHL, Correos bezelako banaketa enpresek banatuko dute gure produktua
- **Sistema informatikoa**→ Gure enpresa ondo funtzionatzeko sistema informatikoak beharko ditugu lana egiteko, hala nola, ordenagailuak, Wi-Fi-a, mugikorrak...
- **Salmenta puntuak**→ Gure salmenta puntu bat Webgune propioa izango da, baita ere Leroy Merlin, Ikea, Mediamarkt, Amazon.... hauek salmenta bitartekariak izango dira. Gure webgune propioetik erosten badute gure produktua, Correos edo Seur bitartez egingo dira banaketak, esperientzia onak bizi ditugu hauekin. Gure produktua hauskorra denez ondo tratatuko dute.
- **Banaketa sarea**→ Salmenta bitartekarietik erosten badute, enpresa bakoitzak banaketari bat edukiko du eta banaketari horrek produktuak garraiatuko ditu bezeroengana.
- **Makinak**→ Gure enpresak ondo funtzionatzeko baliabideak behar ditugu. Baliabide hauek ordenagailuak, telefonoa, imprimagailua... izango dira.

2- Baliabide intelektualak, hemen marka, patenteak, elkarteak eta datu-baseak daude.

- **Marka**→ Gure enpresak marka bat sortu du, marka sortu ondoren logo bat sortu dugu.

Gure enpresa ispiluak ekoizten ditugulako (mirror) eta “NEM” taldekideen inisialetatik ateratzen da (N: Nahia, E: Elene eta M: Maren), arrazoi hauengatik horrela deitzen da.



- **Patenteak**→ Gure ideia patentatu egingo dugu, inork ez lapurtzeko. Ideia modu zehaztasun handiarekin erregistratu behar da, ezaugarri guztiekin.
- **Elkarteak**→ Modako ekitaldiak antolatzen dituzten pertsonekin kontaktatu adibidez, (fashion week-a, inditexeko moda desfileak,victoria secret...)beraiekin hitz egin eta gure ispilua erakutsi beraiei ere saltzeko, Komunitate bat sortuz.
- **Datu baseak**→ Gure produktuaren datu base bat sortuko dugu. Bertan, bezeroen datuak gordeko ditugu, erraklamatzerako orduan pertsona horren datuak gordeta izateko. Horretaz gain, informazio hori gordeko dugu pertsona bakoitzari promozioak egiteko. Bestalde hornitzaileen datu base bat sortuko dugu, hornitzaileak edo beraien datuak kudeatzeko.

3- Giza-baliabideak: Giza-baliabidea, enpresan lan egiten duten pertsonak dira, gure enpresa 5 pertsonaz osatutako talde bat da. 3 zatitan, sormena, ezagutzak eta gaitasun komertziala.

- **Sormena**→ Lantaldean, sormen asko behar dugu produktua berria delako merkatuan eta ekintza berri asko pentsatu behar ditugu.
- **Ezagutza**→ Gure produktuarekin erlazioa duen edozein aspektuen buruz jakin behar dugu, hornitzaileei informazio egokia emateko eta hauek produktua ondo ekoizteko.
- **Gaitasun komertziala**→ Gure produktua promozionatzeko gaitasun komertziala behar dugu bezeroei fidagarritasuna transmititzeko.

4- Finantza baliabideak: Bi aukera ditugu; eskudiru bitartez jarri dirua edo kreditu-lineak erabiliz dirua eskuratzea.

- **Eskudirua**→ Taldekide bakoitzak 3.000€ jarriko ditugu. Jarriko dugun dirua nahikoa izango ez denez, mailegu bat eskatuko dugu. Dirua: materiala, lokala, produktua ekoizten lagunduko diguten enpresei diru kantitate bat emateko erabiliko dugu.
- **Kreditu-lineak**→ Gure enpresa aurrera jarraitzeko maileguak (50.000) eskatuko ditugu, behar dugun materiala eta baliabideak lortzeko. Mailegua eskatzeaz gain, taldekide bakoitzak diru kopuru zehatz bat jarriko dute.